



TECNALIAk eta OdiselA Adimen Artifizialaren Inpaktu Sozial eta Etikoaren Behatokiak bat egin dute teknologia hori enpresetan arduraz erabiltzea bultzatzeko

Ikerketako eta garapen teknologikoko zentroak eta OdiselA behatokiak, elkarren arteko lankidetzaren bidez, teknologia horren inguruko etikari, erantzukizunari eta indarreko legediari buruzko ekintzak bultzatuko dituzte

2023ko uztailaren 26a Esaten da adimen artifiziala funtsezko teknologia dela eraldaketa digitalerako eta, paradigma berri honetan, motor nagusia enpresen lehiakortasunerako eta gizartearen ongizaterako. Hala ere, hazkunde esponentziala izaten ari da, eta horrek aztertu eta zehaztu gabeko bide berriak irekitzen ditu maila guztietan. Adimen artifizialak duen potentziala segurtasunez aprobetxatu ahal izateko, TECNALIA ikerketako eta garapen teknologikoko zentroa eta Adimen Artifizialaren Inpaktu Sozial eta Etikoaren Behatokia (OdiselA) elkartu egin dira, eta teknologia horren erabilera arduratsua bultzatuko dute, hiru azterketa-ardatzetan: etika, erantzukizuna eta indarrean den legedia.

Horregatik, esparru horretan beren gaitasunak bateratzeko lankidetzak-hitzarmen bat sinatu dute; haren bidez, adimen artifizialaren alorreko jarduerak —esate baterako, estatistika eta ikerketa operatiboak— sustatzeko konpromisoa hartu dute. Hala, TECNALIA alderdi hauetan oinarritzen da adimen artifizialari lotutako teknologiak sortzeko: AA inklusibo eta inpaktu sozialekoa, AA jasangarria eta AA etikoa. Bestalde, OdiselA erakundeak esparru horri buruzko kalitatezko irakaskuntza eta ikerketa bultzatzen ditu, eta gizarteari haren garrantziaren berri emateko helburua du.

Lankidetzak horren emaitza gisa, adimen artifizialari buruzko prestakuntza-saioak bultzatuko dira, bultzatuko da bi erakundeetako kideek parte hartzea bi erakundeen jardueretan (berezi bultzatuko da gazteen parte-hartzea) eta AAren erabilera seguru eta arduratsua lortzeko proiektu eta zerbitzuak sustatuko dira.

OdiselA-ri buruz

OdiselA estatuko elkarte bat da, irabazi-asmorik gabea. 2019an sortu zen, eta enpresa, unibertsitate, erakunde eta pertsona fisikoek osatzen dute. Adimen artifiziala eremu



guztietan erantzukizunez erabiltzea bultzatzeko ekintza zehatz eta eragin handikoak bultzatzen ditu, betiere kontuan hartuta etika eta indarreko legedia. Diziplinarteko lantalde bat eta elkartearen ideal eta ikuspegi berdinak dituzten 200 bazkide baino gehiago ditu, partikularrak eta erakundeak barne hartuta.

TECNALIAri buruz

TECNALIA Espainiako ikerketa aplikatuko eta garapen teknologikoko zentro handiena da, erreferentziakoa Europan eta Basque Research and Technology Alliance-ko kide. Enpresei eta erakundeek laguntzen die, haien lehiakortasuna, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta hazkunde jasangarria lortzeko, ikerketa teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez mundu hobe eraikitzeko konpromisoa hartu duten 1.500 lagunetik gorako taldeari esker. Hori dela eta, TECNALIAren ikerketak benetako eragina du gizartean, eta onurak sortzen ditu bizi-kalitate eta aurrerapen gisa.

Hauek dira bere jarduera-eremu nagusiak: fabrikazio adimenduna, eraldaketa digitala, energia-trantsizioa, mugikortasun jasangarria, osasuna eta elikadura, pertsonalizatua, hiri-ekosistema eta ekonomia zirkularra.

European Research Survey ERSk egindako ospeari- eta posizionamenduari buruzko azken azterketan (2022an egin da), TECNALIA lehen postuan ageri da I+G+Bn markak duen ospeari dagokionez.

www.tecnalia.com

Informazio gehiago:

Itziar Blanco (681 273 464)